


Zure etxeko botikinean iraungitako edo behar ez dituzun sendagaiak badituzu, edo botiken ontzi hutsak (prospektua barne) gertuen duzun farmaziako **SIGRE PUNTUAN** utzi behar dituzu. MUTUALIAN sortzen direnak farmazia-zerbitzura bidaltzen dira edo zentro bakoitzeko berariazko edukiontzietan uzten dira. Medikamentu hauek **EZIN DIRA EMAN**, suntsitu egin behar dira.

Zer eraman behar duzu SIGRE puntura?




Iraungitako
sendagaiak



Sendagai-kutxak



Behar ez dituzun
sendagaiak



Ontzi **hutsak**

Ingurumen onurak

- Sendagaien hondakinak ingurumenara iristea saihesten da, gure planetako fauna eta flora babestuz.
- Ontzietako materialak (kartoia, beira, plastikoa, etab.) birziklatzea errazten da, zuhaitzak moztea saihestuz.
- Energia elektrikoa sortzen laguntzen da medikamentu-hondarren balorazio energetikoaren bidez, eta, horrela, erregai fosilen kontsumoa murrizten da.
- Alderantzizko logistikari esker, urtero 1400 tona CO2 inguru isurtzea aurrezten da.

Osasun onurak

- Etxeko botikinean sendagaiak pilatzea saihesten da. Horrela, automedikazio desegokiaren ondoriozko arriskua gutxitzen duzu, baita iraungita edo egoera txarrean dauden sendagaiak erabiltzearen ondoriozkoa ere.
- Osasun-ohitura osasungarriak sustatzen dira, hala nola osasun-profesionalek agindutako tratamenduak betetzea edo botikina aldizka berrikustea.

Pazienteen Segurtasun Arriskuak Kudeatzeko Unitatea